



Aranguren etxebarría (-a) etxebizitza

Aldacrak: Arangurenandikoa / Etxebarria
Ahozkoa:



43° 10' 33"

2° 33' 8"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casa accesoria nueva... situada en el mismo barrio de Ocango de la Anteiglesia de Berriz, que ocupa una planta solar de ciento veinte y medio estados, o cuatrocientos cincuenta y ocho metros... y se compone su piso llano de zaguan, cocina, aposento y cuerdas, y su piso principal de sala, tres cuartos, tres alcobas y pajar, y en el resto desban, siendo su construcción de paredes de cal y canto por los cuatro costados, y los ángulos de piedra sillería, estando construida con bastante solidez..."
DJE 1/65 or. (1864)

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1851koa da, eta bertan Okango kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hau. Hortik aurrera, errolda guztietan behin eta berriz agertzen da.

Baserri neoklasiko aparta dugu, XIX. mendean nagusitu zen goranzko tendentzia nabarmena duena. Fatxada nagusia lau ardatzetan antolatu zuten, nahiz eta indargune bikoitza ezartzeko ahalegina egin, batez ere harriz eta burdinsarez hornitutako lehenengo solairuko balkoiarekin. Izan ere, fatxadako harlanduzko horma-zati bakarra bertan dago, eta informazio-plaka ere bai. Beste bao guztiak leihoak dira; txikiak ganbarakoak dira, eta teilatuaren okerdurari egokitzen zaizkio.

Azpimarratzekoa da atarteak, izkina batean kokatua, arku behekatu baten babesean. Aipatzekoa da komuna ere, iparraldera ematen duen fatxadaren kokatua, balkoiaren antzerako harrizko mentsulen gainean. Sasoiko modari jarraituz, hormak luzituta eta margotuta zeuzkan, harlandua erabiltzen zutelako etxearen kantalak eta baoen ertzak egiteko eta hormetako puntu zehatzak indartzeko. Arestian esan moduan, inskripzio bat dauka, eta honela dio: *"A ESPENSAS DE D. FRANCO DE MARQUINA / Y / D. A. Y M. A. DE GARITA-CELAYA / CONSORTE. / AÑO 1851"*.

toponimia

Arestian aipatu dugun moduan (Ikus Arangurenazpikoa) Haraneder moduan ulertu behar dugu izen hau, baina garaia hartako eta egungo edertasuna ezin ditugu parekatu eta pentsatu behar dugu ugaritasuna edo emankortasunaz ari zirela. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak erakusten digu Aranguren guneko etxe berriena izan zela.